

ALDE ZAHARRA BERRITZEKO LANAK

Kale Nagusian telefonoa, ura eta desaguetak ia pasa dituzte

■ Plazatik begiratuta, eskubiko aldetik ari dira tuboak pasatzen ■ Bukatzean, ibiltzeko moduan utzi eta ezker aldea zulatuko dute, argia eta gasa pasatzeko.



Kale Nagusia ari dira poliki-poliki berritzen.

ALDE Zaharreko berritze lanak aurrera dihoaz Kale nagusian. Obrako enkargatuak Kronikari esan dionez Plaza Berriaz behera jarritako fetxak baino aurrerago dihoaz; Karkabatik gora, berriz, hitzartu bezala. Eguraldiak eta gauza arrarorik ez topatzeak asko lagundu omen die.

URA, TELEFONOA ETA UR ZIKINAK
Hoiek dira oraingoz pasatzen ari direnak. Bukatzean, erretena itxi eta ibiltzeko moduan jarriko dute kalearen eskubialdea. Orduan hasiko dira ezkeraldea irekitzen, Iberdueroko eta Gas Hernaniko tuboak pasatzeko.

ERDIKO PUSKETA BUKAERAN
Karkabatik Plaza Berriara dijon kale pusketa ikutu gabe daukate oraindik. Makinek buelta eman ahal izateko edo autoak sartu ahal izateko horrelaxe utziko dute pusketa hori gainerrako zatia autoak ibiltzeko moduan dagoen arte. □

Kantuz Abesbatzak kontzertua emango du gaur Sandiusterrin, 20:00etan

■ Kantuz Eguna ospatzen dute ■ Kontzertua, bereziki, bazkide-laguntzaileei eskainia dago ■ 15 kantuko errepertorio zabala abestuko du.

JUBILATU EGOITZA

Udazkenean Costa Bravara bidaiara antolatu du

■ Irailaren 22tik urriaren 2ra da bidaiara ■ Astelehenetik aurrera joateko izena eman liteke

JUBILATU Egoitzak urtero 10 bat egunetako bidaiara antolatzen du, udazkenerako. Aurten Costa Bravara joateko plana egin du, Aroko ondartzara. Dijoaztenek inguruko parajeak ikusteko aukera izango dute: egun osoko eskurtsioa egingo dute San Sadurni de Noyara, eta gero inguruko herrietara goiz pasako eskurtsioak ere bai. Bidaiara irailaren 22tik urriaren 2ra izango da eta joanetorriko otordua bidaiari bertan sartzen da. Kataluniako kostan egonaldi eder hori pasa nahi

duenak astelehenetik aurrera (maiatzak 28) du izena emateko aukera.

EKAINAREN 2AN CATRO URDIALES-ERA

Jubilatu Egoitzak Castro Urdialesera egun osoko eskurtsioa antolatu du datorren larunbaterako. Prezioa: 2.200 Pta, pertsonako. Zozketa datorren astelehenean egingo da, betiko orduan.

Bestalde, Jacarako autobusa 09:00etan aterako da Atsegingeditik. □

■ ERRUGBIA INFANTILAK

Hernani-Gernika, Euskadiko finala gaur

■ Bilbon jokatu da *El Fango* zelaian, 10:00etan. HERNANIKo errugbilari gazteek, titulo berri bat ekarri dezakete herrira. Gaur infantilen txanda da. Euskadiko jokoen finala jokatu dute Gernikaren aurka Bilbon. HRTtik esan digutenez, 'ekidepoa oso ondo eta indartsu dago, partidua irabazteko irrikitan'. □

■ ERREMONTA GALARRETAN

Zeberio II - Iriarte Ezkurra - Urretabizkaia II Masterreko finalean, gaur

■ Zeinek bi partidu irabazi da finala ■ Lehenengo partidua Ezkurra-Urretabizkaia II-ak irabazi zuten.

GALARRETAN Masterreko txapela, Galarretan bertan. finaleko bigarren partidua jokatu da gaur. Aurreko partiduan Ezkurra-Urretabizkaia II-ak irabazi zuten (40-35). Gaur ere irabazi ezker, Masterreko txapeldun geldituko dira, hirugarren partidua jokatu beharrik gabe. Zeberio II-Iriarte nagusitzen badira, datorren larunbatean erabakiko da

ALDE GUTXI

Lehen partiduan ez zen alde handirik izan. 34-34 joan ziren, baina, azkenean Ezkurra irabazi zuten.

Erremonte jaialdia arratsaldeko 16:00etan hasiko da eta Masterreko finala jaialdiko bigarren partidua da. □

Telemar

ITXASTELE S.L.

Telyco denda

Elkano 13, HERNANI ☎ 943 33 26 00

- ⇒ 'Telefonica'ko banatzailea
- ⇒ Movistar
- ⇒ Zentralitak
- ⇒ Faxak
- ⇒ Telefonía mugikorra
- ⇒ "Via digital", inalanbrikoak,...

ESKEINTZAK:

ordenagailua

INTEL P IV edo AMD A 1300 MHZ
17"ko Monitorea, 8432 LG Erregabadora,
12 X DVD LG Irakurlea + oparia
(LexMark Z32 Inpresora)

179.000 Pta + %16ko Bez a.

mobila

ALCATEL ONE TOUCH
(view) @



WAP
Teknologia
15.000 pzta
deietan.



EUSKAL GIROA

Igande eta jai egun
guztietan dantzaldia
19:30etatik aurrera.

OIALUME AUZOA - 943 55 29 38



Antziola-Motor

Zerbitzu Ofiziala

- ▶ Kotxe berri eta aukerakoen salmenta
- ▶ Tailer mekanikoa, elektrizitatea eta elektronika
- ▶ Aseguruen gestioa
- ▶ Finantziarioak
- ▶ Kotxeak jaso eta leku berera itzultzen ditugu



Antziola auzoa 12 - Tel. 943 55 57 72 - Faxe 943 55 21 96 HERNANI

'Haragiaren Eguna' ekainaren 2an izango da aurten

■ Berriak elkarteak antolatzen du ■ Hamabi ordu pasako ditu Gudarien plazan txekorrek pixkanaka erretzen.



Txekorra Tolosako 'Soroa' baserrian. Gaixoak baleki...

GOIZEKO 06:00etarako hasiko dira txekorra erretzen Gudarien plazan, arratsaldeko 19:00etarako pintxotan banatzeko. Aurten urte bete inguruko txekorra dakarkite; begiratu batera "45 bat erraldekua" nagusiaren hitzetan. Erretzera, berriz, Elorrioko Karlos Ibarrondo ekarriko dute, egun osorako biletea hartuta.

SEIGARREN ALDIA
Kalean animazio pixka bat jartzeagatik hasi ziren Txekorraren Eguna egiten Berriakekoak. Dagoeneko jakineko zita bihurtu da herritarrentzat, eta eguraldiak laguntzen badu ziurtatua dago arrakasta. Erretzera Elorrioko Karlos Ibarrondo etorriko da. Ohitura ere Elorrioko auzo batetik zabaldu da Euskal Herrira.

ASPALDIKO OHITURA

Karlosek kontatu digunez Elorrioren Andra Mari elizarentzat dirua ateratzeko bi txekor osorik erre eta pusketak subastatzen zituzten 1.600 garren urte inguruan. Hala diote idatzi zaharrek. Txekorrek urtez urte baserriarrek ematen zituzten. Eliza autofinantzia-tzen hasi zenean ere ohiturari eutsi egin zioten Elorrioko baserriarrek, eta oraindik ere txekorra erretzen segitzen dute. Orain ohitura Euskal Herri osora zabaldu da, Karlosen hitzetan "haragia promozionatzeko".

HAMABI ORDU SUTAN

Txekorra osoan ondo erretzeak badu bere artea. Burduntzian lotzen ordu bete inguru behar da, eta gero hamabi ordu inguruan eduki behar da egur-ikatzetan poliki-poliki egiten: Sei ordu ezer bota gabe, eta beste sei bereziki egindako *mejune* bat igurtziaz. Karlosek dio sekretua "kanpotik erre gabe barrua egitean" dagoela, baina, ez omen da hain erraza "txahal guztiak ezberdinak baitira". Zerbaitegatik joan behar izan zuen iaz "Euskal Herriko 37 lekuetara, *bigak* erretzera". □

■ MUS TXAPELKETAK

Jabier-Pello/Iñaki-Julian eta Jon-Greñas/Goñi-Karrion Aralarreko semifinalak jokatzeko



Final laurdenak jokatzen. Pello (eskubira) kartei begira. Onak etorri izango zitzaizkion, irabazi egin zuten-eta.

OSTEGUNEAN jokatu ziren Aralarreko mus txapelketako final laurdenak: iazko txapelkunak aurrerako, beste hiru kandidatorekin batera. Finalurreko partidak astelehenean jokatu dituzte eta finala datorren ostegunean. Iluntzean hasiko da ekitaldia: lehenbizi hirugarren-laugarren postuak jokatu dira; gero, Floridako Marcel magoa arituko da bere trukoak egiten. Eta, bukaerako errematea emateko txapelketako finala. □

■ GIMNASIA ERRITMIKOA

Jaione Tejedor Euskal Herriko txapelketan arituko da bihar, Gasteizen

■ Soka, aroa eta pelota modalitateetan arituko da.



Jaione Hernanin egindako erakustaldi batean.

JAIONE Tejedor gazteak Euskal Herriko txapelketa jokatu du igandean Gasteizen. Hernaniarrak Gipuzkoako txapelketan paper ona egin zuen eta orain beste herrialdeetako onenekin aritu beharko du. Buruz-buruko Txapelketa honen ondoren, datorren astean ekipokakoa jokatu du; eta ekainaren erdialdera estatutailakoa.

GAZTETXOAK, BIKAIN

Aurreko asteburuan gaztetxoei Gipuzkoako finalak jokatu zituzten eta hernaniarrek 2

urrezko domiña irabazi zituzten. Infantiletan, Elizatxoko hiru gimnasta atera ziren: Uxue Mingo txapelkun gelditu zen, *eskulibre* eta *pelota* modalitateetan puntuazio onena lortuta; Iratxe Ollo eta Nerea Uzkiu ere hamar aurrenekoetan sartu ziren.

Kadeteetan, berriz, Ainhoa Rodriguez atera zen, Urumeatik. Ainhoa ere, oso saio ona egin, eta Gipuzkoako txapelkun gelditu zen: *aro* modalitatean puntuazio onena berak ateratu zuen eta *mazetan*, hirugarren onena. □

■ GERTAKARIAK

Kamioia irauli da Mandazubiko rotondan

■ Egurrez kargatuta zijoan kamioiak, ostiral goizeko 1:00ak aldera izan zuen istripua ■ Bi grua haundi ekarri behar izan zituzten kamioia errepidetik baztertzeko.

■ FUTBOLA

Bigarren Kadeteek kopako finala dute gaur, Zubipen

■ Hondarrabiren kontra jokatu dute, 12:00etan ■ Beste partidua: gaur, Gazteen Ohorezko ligan, Hernani-Euskalduna, 11:00etan; Kadete Ohorezko ligan Añorga-Hernani, 12:00etan. Bihar: Gorengo mailan Hernani-Trintxerpe, 17:00etan.

ZERBITZUAK

☎ TELEFONOAK

► Taxiak: 943 550093
► Udaltzaingoa: 943 333288
► DYA: 943 464622
► Autobusak: 943 556662
► Anbulatorioa: 943 557750
► Jokalari anonimoak 943 331103

☎ FARMAZIAK

► Egunez: Chucla Kardaberaz 48 ☎ 943 551793
► Gaez: Urbistondo Lasarte. San Franzisko 1, B ☎ 943 366567

INMACULADA IKASTETXEKO Haurtzaindegi zerbitzua



Datorren irailean irekiko da Zuen beharrak betetzeko ordutegia izango dugu Informazio gehiago jasotzeko, deitu **943-550233** telefonora

IRAGARKI MERKEAK

■ Pisu bat salgai Mañe i Flaquerren. Interesatuak deitu:

☎ 658.71 07 27

■ Pisu bat daukagu alokatzeko, konpartituta. Oso merke. Deitu: ☎ 943 33 27 39 (eguerditan)- ☎ 943 55 23 23 (22:00etatik aurrera).